



# A25 – 2018

## LH – 3. Zikloa

### (5. eta 6)



*Berdintasunaren Batzorde Mistoa*  
*Comisión Mixta de Igualdad*

Gizarte Ongizatea  
Bienestar Social



Ayuntamiento de  
Portugaleteko Udala



2017

# PROPOSAMENA

## AZAROAK 25 - 2018

Emakumeen aurkako indarkeriari ez

5 eta 6 mailan, bi tutoretza Saioa eta heziketa fisikoa saio bat garatzea egokiena dela penstatzen dugu.

**Lehenengo Saioa: tutoretza saioan...** patioan ematen diren joko, jolas eta indarkeriei buruz hitz egingo dugu. Horretarako, Tutoreak, patioan gertatzen den azalpena emango dute. Horretarako, guk erabilitako aurkezpena eta beraiek behatutako fitxa erabili dezakete.

**00.00-00.15** Lehenengo eskatzen diegu ikasleek ideiak botatzeko: Zer gertatzen da Jolastokian? Zertara jolasten dugu? Non egiten ditugu jolas horiek? Bost minutu pasatzen direnean, Irakasleak hausnarketa eta informazioa helaraziko diete egindako behaketa eta formakuntzan izandako materialarekin.

**00.15-00.30** Non egiten ditugu joku, jolas eta ekintza horiek?

- a. Kalera irten eta dauzkagun jolastokietan zertan jolasten dugun ikusi eta idatzi ( ipini folio batean eta gero bertan kolokatu)
- b. Jolastokiaren plano bat izan eta klasean egin behaketa lana.

**00.30-00.45** Patioa eta joko, jolas eta ekintzen indar sinbolikoa aztertzen

- 1- Zeintzuk dira esparru zentrala hartzen duten jolas eta jokoak?
- 2- Nortzuk dira bertan jolasten dutenak?
- 3- Zer gertatzen da gustuko ditugun beste jolas eta jokoekin?
- 4- Ze pertsonak geratzen dira alboetan?
- 5- Zelako ekintzak egiten dira alboetan?

Taldeka jartzen gara eta talde bakoitzak hausnarketa egiten du. Gero amankomunean jartzen dugu eta hausnarketa kolektiboa egiten dugu. Horrela, patioen egunerokotasunaren argazki bat eginda daukagu hurrengo saioetan lantzeko.

**2. saioa: Heziketa fisikoko irakasgaian...** indarkeria sustatzen duten jolasak eta kooperazioa eta hezkidetzan oinarritutako jokoak frogatuko dituzte, haien emozio eta gatazkekin konektatuz.

**00.00-00.45** Ikasleak beraien parte hartzearekin, indarkeria eta hezkidetzak sustatzen duten jolas, joko eta ekintzak biziko dituzte. Lehenengo konpetitiboak eta baztertzailak diren jokoak eta jolasak egingo dira eta gero, kooperatiboak, material alternatibo ezberdinak erabiliz. ( [Indarkeri VS hezkidetzak eranskina](#))

**00.45- 00.50** Hauek sustatzen duten erlazioei buruz hausnartuko dute eta irakaslea, papel estraza batean joango da haien bizipenak, emozioak, indarkeriak eta gatazkek idazten.

**00.50 -01.00** Eta proposatzen baditugu dibertsitatea sustatzen dituzten jolasak? Nolakoak izan beharko lirateke?

Talde anitzak egiten ditugu eta proposatzen diegu, [jolas eta joko ez sexisten gidarekin](#) lagunduta, hezkidetzan oinarritutako jolas, joko eta ekintza zerrenda bat egiteko, gero, Tutoretza saiora proposamenak eramateko.

**3. Saioa: tutoretza saio batean....** Talde bakoitzak aurkeztu egindako zerrenda. Klasean,joko eta jolas ezberdinen taula jarriko dugu eta zerrendan dagoena sartuko dugu taulatxo bakoitzean.

Gure garapenerako beharrezkoak diren joko, jolas eta ekintzak daude? Hausnartu eta gero erabakiko dute zeintzuk izango diren eskolako jolas, joko eta ekintzak eta antolatuko dute patio kudeatzaile taldea.

**00.00- 00.15** Zertara jolastu? Erabaki Ikastetxeko zein esparruetan egin nahi dituzten ekintzak. Jolas zerrenda eta esparruaren kokapena lortu behar dugu. ( [eranskina](#)).

**00.15-00.30** Jolasteko beharrezkoak diren materialen zerrenda egin.

**00.30- 00.45** Guk, patioaren kudeatzaileak! Nola antolatu jolas, joko eta ekintzak eta zelan eman jarraitasuna.( Eranskinarekin lagunduta)

## **Materialak:**

### 1. saiorako materialak:

- Behaketa fitxa
- 3.moduluaren aurkezpena-
- kartulinak
- errotulagaikuak

### 2. saiorako materialak

- Paper estraza
- Errotulagailuak
- Indarkeri VS hezkidetza eranskina
- jolas eta joku ez sexisten gidaren eranskina

### 3. saiorako materialak

- espazio eta joko kudeaketaren eranskina
- patioaren kudeatzaile arautegiaren eranskina

Materialak eta fitxak eskuragarri izango dituzue webgunean: <http://hezkidetza.aisialdisarea.org>